

## IKUSLE

Ez da ezer entzuten, dena ilun dago, zu zeure logelan zaude, lasai, lokartzear, argi motel baten azpian. Azken asteak gogorak izan dira, ahaztuta zeneukan benetan erlaxatuta egotea zer zen, baina lortu duzu, gaur zure buruak atsedean txiki bat eman dizu. Baina bat-batean eztanda arrotz bat entzun da, argi sorta batekin batera. Eztrandak eta argiak bata bestearen atzetik datoz. Bakea bukatu egin da. Zuk ondo dakizu zer egin behar duzun, lehenago edo beranduago bazenekien hau gertatuko zela. Zure zapatila gogokoenak azkar jantzi, eta denbora galdu gabe, zure familiarekin elkartu zara sukaldeko mahai azpian. Han babestu zarete hirurok, aurrenetik hitz eginda zeneukaten bezala. Poliki-poliki gelak zeukan argitasuna itzali egin da eta iluntasunean desagertu zarete.

Berriz egin da argia, oraingoan grisaxka eta zikina da, eta ia ez da ikusi ere egiten. Zu bizi izan zaren eraikinaren aurrean zaude, ebakuatu zaituztete, orain arriskutsua da berriro han bizi zena. Ezagutzen zenuen hori guztia desagertu egin da. Berriz ere, iluntasunean barneratu zara.

Dena beltz dago, gaua da, ilargia ageri ez den gau horietako bat. Buruan daramazun aurreko linterna piztea erabaki duzu. Zure aurrean eta atzean pertsona ilara amaigabe bat dago, zure ondoan zure senideak. Oinpean begiratzen duzu, trenbideko errailen gainean zabilta eta zure zapata gogokoenak daramatzazu, dagoeneko kolorez aldatzen hasiak. Bizkar gainean zure ondasunik preziatuenak garraiatzen ari zara, etxetik hartzeko astia eman dizutenak. Ez duzu behar adina atsedean hartu, beraz, ibilaldia gelditu bezain laster, lo geratu zara eta dena beltz bihurtu da berriro ere.

Argitasun ikaragarria hautematen da, entzuten den gauza bakarra itsasoa da, eta beste oihu euforikoren bat, lehen etaparen amaierara iritsi izanagatik. Zu ikaratuta zaude, urduri eta pozik aldi berean, sentsazio arraroa da. Senideei begiratzen diezu, haiek begirada itzultzen dizute eta konplizitate-sentsazio beroa sentitzen duzu. Dena ondo aterako da, pentsatzen duzu. Zure gurasoak gizon batekin hitz egitera joan dira, zerbait eman diote eta zuregana bueltatu dira. Heldu bezain pronto beraien atzean joateko eskatu dizute, zu ezer galdetu barik, beraien atzean abiatzen zara. Berehala berrogei bat laguneko talde batekin elkartu zara, gizon batek itsas edukiontzia batean sartzeko agindu digu. Denok barruan geundela, gizonak edukiontzia itxi du, ilunpetan berriro.

Kolpe lehor baten ondoren, metalezko ontziaren atea irekitzen da eta ireki ahala argia espazioan sartzen hasi zaizue. Hamar ordu inguru ilunpetan egon ondoren, argiak itsutu

eta gogaitu egiten zaitu, segundo batzuen ondoren zure begi niniak ohitu egin dira. Gizon baten irudia ikusten duzu, metalezko kubo barruan gauden guztioi irteteko keinuak egitez. Denok irten gara eta, isil-isilik eta soilik linterna batez argituta, ilara bat osatuz goaz gizonaren atzetik. Tipustapastean, hezetasuna nabaritzen duzu oinetan, hondartzan zaudela interpretatzen duzu. Zure zapatila gustukoenetan pentsatzen hasten zara, urak azken egunetako hautsa eta lokatza kentzen lagunduko du. Zerbait dago ur gainean, txalupa bat da, presaka igotzen gara denok, zure familiaren aldamenean kokatzen zara. Haraino eraman gaituen gizona hondartzan geratzen da, gu mugitzen hasten gara eta linternaren argia urruntzen da. Ez duzu ezer ez ikusten.

Eguna argitzen hasten da eta eguzkiak esnatu egiten zaitu. Pertsona batek esan duenez, zortea izan dugu, gauean itsasoa lasai egon delako. Zu ez zaude guztiz ados, olatuen gaineko igoera eta jaitsierek sabela nahasi dizute eta botaka egiteko gogoia duzu. Kaputxa jantzi eta argitik babesten zara, lo egin nahi duzu, esnatzean hobeto egotea desio duzu. Dena ilun dago.

Esnatu zara, txalupa gehiegi mugitzen da, ez dago argirik, baina bai zarata. Olatuen burrunbak eta jendearen oihu etsiak entzuten dira, gogor ixten dituzu begiak, dena amaitu dadin nahi duzu.

Bat-batean ura sentitzen duzu berriro zure oinetakoetan, begiak irekitzen dituzu, ez dakizu zenbat denbora igaro den, zortzi edo bederatzi egun. Hezetasunak zure hankatik eskalatzen du, txalupa hondoratzen ari da. Gau argia da, ilargi betea dago. Gutako gehienak geldirik gaude, klimak, deshidratazioak eta nekeak ez digute erantzuten uzten. Han, itsas hondoko iluntasunean, txalupa pixkanaka-pixkanaka hondoratzen hasi da. Itsasoan igeri egiten ari zara, kosta egiten zaizu, zapatilekin nekeza da. Baina zuk ez dituzu zure zapatila gustukoenak galdu nahi, zure azken jabetza, zure aurreko bizitzako azken oroitzapena. Nekea areagotu egiten da, gelditzeko gogoia duzu. Azkenean, ez duzu ezer sentitzen. Dena ilun, dena beltz.

Entzuleen txaloen oihartzuna entzuten hasten da, oihala ixtearekin batera. Aretoko argiak piztu egiten dira, aktoreak agertokira ateratzen dira eta txalo zaparrada batekin eskertzen dute. Oraingoan ez da benetakoa izan, salbu zaude. Aktoreak eszenatokitik irteten dira eta ikusleek beren eserlekuak uzten dituzte euren etxeetara itzultzeko, ikusle izaten jarraitzeko. Antzokiko argiak itzali egiten dira eta iluntasuna berriro ere.